KALAPUTXI

MUTRIKUKO HERRI-ALDIZKARIXA 2019ko iraila 197. zenb.



Imanol Elezgarai eta Luken Goenaga

KRESALAK ZAILDUTAKO BIZITZAK

Mutrikuarrak Habanan <
Kostako bidea zabalik <
Agorrilak ontzen, buruilak biltzen <
Liñua (II): Janzteko balixo zoan bedarra <

islada
FISIOTERAPIA





ANTIGIMNASIA
EZAGUTZEKO SAIOAK

IRAILAK 27
10:00-11:30 ETA 18:00-19:30
IRAILAK 28
10:00-11:30

Ez utzi pasatzen gure lokalean DOAN izango duzun aukera

zure plaza gordetzeko: **943603655** edo **islada@islada.org**

ETA BETIKO ESKAINTZA:
FISIOTERAPIA, PILATES, ERREHABILITAZIOA, HIPOPRESIBOAK, DIATERMIA (MEDESTEC)

San Agustin 10, behea · 943603655 · islada@islada.org

MAIDER PINTO
estetika eta terapia naturalak

Reflexologia

KOSMETIKA NATURALA eta EKOLOGIKOA

Ikaragarriak dira dituen efektuak Oinetan aurkitzen diren nerbioek lotura zuzena dute gorputzeko organo guztiekin.

- Antsietatea
- Lumbagoak
- Ziatika
- Zerbikalak
- Buruko minak
- Lotako arazoak
- Alergiak
- Zirkulazio arazoak



5€-ko deskontua reflexologian txartel hau ekarriz gero
Urriaren 31 arte

Barrenkale 9, behea · 20830 **MUTRIKU** · **Tlf. 650 341 768**

Telefonoak

Osasuna

Larrialdiak	943 46 11 11
Anbulatorioa	943 60 43 00
DYA zentrala	943 46 46 22
Mendaroko ospitala	943 03 28 00
Botikak	
Lasuen-Elezgarai	943 19 50 26
	626 61 13 92
Lon Apraiz	943 60 32 50
	630 05 50 97
Amaia Zalduegi	669 26 22 01
Hiart Burgoa	667 33 88 90
Etxeberria (Elgoibar)	943 74 01 40
Garitaonaindia (Elgoibar)	943 74 11 77
Yudego (Elgoibar)	943 74 12 93
Barrenetxea-Etxeberria (Elgoibar)	943 74 12 77
Idoia Lafuente (Eibar)	943 25 44 10

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea	943 60 32 44
Udaltzaingoa	943 60 70 48
	679 16 25 00
Gizarte Ongizatea	943 19 50 81
Anai Arte	943 60 42 47
Zaharren Egoitza	943 60 38 71
Eguneko Zentroa (Deba)	943 19 23 60
Turismo Bulegoa	943 60 33 78
Bake epaitegia	943 60 70 49
Kiroldegia	943 60 31 75
Liburutegia	943 60 41 82
Miruaitz pilotalekua	943 60 41 91
Ur Partzuergoa	902 30 22 22
Zakarrak eta traste zaharrak	943 70 07 99
Posta zerbitzua	943 60 30 44

Irakaskuntza

Goizeko Izarra Ikastola	943 60 36 75
San Miguel Ikastetxea	943 60 31 95
Mutrikuko Institutua	943 89 92 24
Udal Euskaltegia	943 60 30 94
Udal Musika Eskola	943 60 37 80
Haurreskola publikoa	943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

ANSOLA taxia	638 67 23 83
ANTON taxia	666 22 19 99
XABI taxia	656 28 90 26
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa Autobusak	902 10 12 10
BizkaiBus	902 22 22 65
EuskoTren	902 54 32 10
Loiuko Aireportua	905 50 50 05

Bestelakoak

Parrokia	943 60 39 87
Bikario etxea	943 60 39 88
Santa Catalina eleiza	943 60 32 00

BERTSO ESKOLARA NOA...

Doinua: Norteko ferrokarrila

1)Mutrikun hamaika kultur talde
A ze aberastasuna!
Bakoitzak du bere funtzioa
Ta bere eginkizuna
Gurea noski bertsolaritza
Ta bertso zaletasuna
Baina zer da bertso eskola ta
Zer da jorratzen duguna?

2) Jakinekoak Santa Eskia
Eta bertso jaialdiak
Bertso trama, bertso musikatu
Edo bertso afariak
Baita herriko ongietorri
Edota omenaldiak
Baina bertso eskolaren funtsa
Ez dira ekitaldiak

3) Baizik bertsotan irakasteko
Aukera edo ardura...
Edo sinpleki gerturatzea
Hitzaren jolas mundura
Ez dago zertan izan beharrik
Bertsotarako ohitura
Bertsolaritzaz gozatzen bai du
Bakoitzak bere modura

4) Beraz norbaiti otu ezkero
Mundu hontan murgiltzea
Bertso eskolaren funtzioa
Aukera bat eskeintzea
Gaztetxo, gazte edo ez_hain gazte
Kontua animatzea
Denori datorkigu primeran
Sormen puntua lantzea

5) Bizitza inprobisatu hontan
Nor ezta ba bertsolari?
Guztiok erantzuten diogu
Eguneroko gaiari
Bidea libre utzi ezkero
Bat-batekotasunari;
Geurekiko iraultza txikiak
Bihurtu daitezke haundi!

6) "Bertsolari" baten "iritzixa"
Bertso doinuen moldetan
Beraz bertsolaritzaz gozatu
Nahi bada kurtso honetan
Edo kuriositate hutsez
Jakinminaren mugetan...
Arrimatu lasai Luardora
Baixaku arratsaldetan

Argitaratzailea **Karenka komunikazio elkartea**
Barrenkale 12, behea - 20830 Mutriku Tel. 635 748 393
e-posta **aldizkaria@kalaputxi.eus** - **kalaputxi2001@gmail.com**
web **http://www.kalaputxi.eus** Bloga **www.kalaputxi.blogspot.com**
Laguntzaileak **Mutrikuko Udala** eta **Gipuzkoako Foru Aldundia**
Kolaboratzaileak **Iñigo Andonegi, Josu Larrañaga.**
Tirada **2.200 ale** Lege Gordailua **SS-787/01** ISSN **1579-4792**
Inprimategia **EUSKALINPRI** Banaketa **Kalaputxi**

Kalaputxi Herri-Aldizkarixak
Erakunde hauen diru laguntza jasotzen du:

Mutrikuko Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

www.lurraldebus.eus

900 300 340

astelehenetik ostiralera

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA

Lekeitio	6:15	9:50	12:50	17:50	20:00	
Ondarroa	6:40	10:15	13:15	18:15	20:25	
Mutriku	6:45	10:20	13:20	18:20	20:30	
Donostia	7:55	11:30	14:30	19:30	---	Unibertsitatetik

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO

Donostia	8:00	11:00	14:30	18:00	20:30	Unibertsitatetik
Mutriku	8:50	11:50	15:25	18:50	21:20	
Lekeitio	9:35	12:35	16:10	19:35	22:05	

DB04 ONDARROA-MALLABIA

Mutriku	7:15	orduro	20:15	21:25	22:15	22:45
Mendaro	7:50	orduro	20:50	22:05	22:50	22:55
Eibar	8:15	orduro	21:15	22:30	22:45	23:15
Mallabia	8:30	orduro	21:30	22:45	---	---

DB04 MALLABIA-ONDARROA

ostiral-larunegun

Mallabia	6:00	6:45	orduro	20:45	21:25	22:05
Eibar	6:10	7:05	orduro	21:05	21:45	22:15
Mendaro	6:35	7:35	orduro	21:35	22:10	22:30
Mutriku	6:55	7:55	orduro	21:55	22:30	22:40

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	6:25	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25
Deba	6:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40
Zumaia	7:10	10:10	12:10	14:10	17:10	19:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	8:10	10:10	12:10	15:10	17:10	
Deba	8:40	10:40	12:40	15:40	17:40	
Deba	9:15	11:15	13:15	16:15	18:15	
Mutriku	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25	

DB06 ONDARROA-SORALUZE

Mutriku	8:45	10:45	12:45	14:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	9:15	11:15	13:15	15:15	18:15	20:15	22:15
Soraluze	9:40	11:40	13:40	15:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA

Soraluze	7:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	7:45	9:45	11:45	13:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	8:00	10:00	12:00	14:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	8:20	10:20	12:20	14:20	17:20	19:20	21:20

larunbat, igande eta jai-egunak

NEGUKO ORDUTEGIAK EGUNERATUTA

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA

Lekeitio	8:00	12:30	17:00	19:00	
Ondarroa	8:25	12:55	17:25	19:25	
Mutriku	8:30	13:00	17:30	19:30	
Donostia	9:40	14:10	18:40	20:40	

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO

Donostia	10:30	14:30	17:00	lg 20:30	Lr 21:00
Mutriku	11:20	15:20	17:50	21:20	21:50
Lekeitio	12:05	16:05	18:35	22:05	22:35

DB04 ONDARROA-MALLABIA

Mutriku	Lr 7:15	lg 8:15	orduro	20:15	21:25	Lr 22:15
Mendaro	7:45	8:45	orduro	20:45	22:05	22:20
Eibar	8:10	9:10	orduro	21:10	22:30	22:45
Mallabia	8:25	9:25	orduro	21:25	22:45	---

DB04 MALLABIA-ONDARROA

Mallabia	Lr 6:50	lg 7:45	orduro	Lr 21:45	lg 19:45
Eibar	7:00	8:00	orduro	22:00	20:00
Mendaro	7:35	8:35	orduro	22:35	20:35
Mutriku	7:55	8:55	orduro	22:55	20:55

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	Lr 8:25	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25
Deba	8:40	10:40	12:40	14:40	16:40	18:40	20:40
Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	21:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	Lr 9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	Lr 22:10
Deba	9:40	11:40	13:40	15:40	17:40	19:40	22:40
Deba	10:15	12:15	14:15	16:15	18:15	20:15	23:15
Mutriku	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25	23:25

DB06 ONDARROA-SORALUZE

Mutriku	Lr 9:45	11:45	13:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	10:20	12:20	14:20	18:20	20:20	22:20
Soraluze	10:40	12:40	14:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA

Soraluze	Lr 8:40	10:40	12.40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	8:45	10:45	12:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	9:00	12:00	13:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	9:20	12:20	13:20	17:20	19:20	21:20

www.euskotren.eus

Bilbo - DEBA - Donostia

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
Bilbo		7:00	20:00
Eibar	6:14	7:14	21:14
Elgoibar	6:24	7:24	21:24
Mendaro	6:33	7:33	21:33
DEBA	**6:44**	**7:44**	**21:44**
Zumaia	7:00	8:00	22:00
Zarautz	7:08	8:08	22:08
Orio	7:15	8:15	22:15
Errekalde	7:29	9:29	22:29
Donostia	7:38	9:38	22:38

Donostia - DEBA - Bilbo

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
Donostia	5:50	7:50	20:50
Errekalde	5:59	7:59	20:59
Orio	6:14	8:14	21:14
Zarautz	6:20	8:20	21:20
Zumaia	6:29	8:29	21:29
DEBA	**6:43**	**8:43**	**21.43**
Mendaro	6:52	8:52	21:52
Elgoibar	7:01	9:01	22:01
Eibar	7:11	9:11	22:11
Bilbo	8:20	10:20	23:20

Bizkaibus 902 222 265

ONDARROA - BILBO

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	5:40	19:40
Mutrikutik irten: 6:25, 7:25, 15:25		
A3915 Durangotik	6:10	20:10
Ondarroatik Bilbora **zuzenean**: 6:30; 7:30		

jai egunak

A3916 Ermuatik	6:40	20:40
A3915 Durangotik	7:10	20:10

BILBO - ONDARROA

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	7:10	22:10
Mutrikuraino: 14:10, 18:10, 20:10		
A3915 Durangotik	7:40	21:40

jai egunak

A3916 Ermuatik	8:10	22:10
A3915 Durangotik	8:40	21:40

ordutegi eta geltoki guztiak hemen:

www.kalaputxi.eus/garraioa

GUK BULTZ, ZUEK TEINK!

Zuek bultz, guk teink! Ieloarekin animatu nahi izan zenituzten mutrikuarrak Mutriku Arraun Taldekideok. Zuek saiatuko zinetela agindu zenuten, eta gure herria ondoan izan nahi zenutela eskatu. Egia esan, urtetan eta urtetan arraunaren munduan bizi izanda, gure herrian itsasoari lotutako tradizioak bizirik iraun dezan lan isila eta gogorra egin duzue. Halako batean, hiru urte egin dituzue herriko trainerua itsasoratzen, gure harrotasunerako.


Ez da erraza hamahiru laguneko tripulazioak urte osoko konpromisoa hartzea eta sakrifizio izugarria egin behar izatea, baina lortu duzue. Zorionez, eredu ederra ipini duzue herriko gazteentzat. Eta neskak ere hor datoz sakaka. Ea urruti ez dagoen nesken tripulazio batek Mutrikuren trainerua itsasoratzen duen eguna. Ederra izango litzateke.

Abuztuko azken ostegunean Donostiara joan eta horiaren, gorriaren, urdinaren eta beste berdearen artean gure berdea ikustea ederra izan da. Azken hiru urteetan mutrikuarren trainerua Kontxako uretan ikusteak halako poza eman digu mutrikuarroi. Amets egiten hasita, ederra litzateke egunen batean gure herritik autobuskadak jende Kontxako sailkapena ikustera joatea. Eta berriz etorriko gara Mutrikuko kaiera...

Seiehun bazkidetik gora, Yurrita buru dela patrozinatzaile mordo bat, udalaren babesa... Ez zarete bakarrik egon, ez, eta aurrerantzean ere ea lortzen duzuen bakarrik ez egotea. Zaila da zuena bezalako kirol batean bidea egitea, laguntasun handiak behar baitituzue, baina zuen ahaleginaren tamaina ikusita, beste herrikideok ere geuretik ipini beharko dugu gure herriaren izena Kantauriko itsasoan barrena ikusten jarraitu nahi badugu. Ea, ba, hala den.

Bitartean, zuek segi teink egiten eta guk bultz egiten segituko dugu. Egunen batean lortuko ditugu herri honek arraun taldeari zor dizkionak!

Joseba Palenzuela Arrieta



KALAPUTXI

Gutunak izen abizenekin bidali:
kalaputxi2001@gmail.com edota
aldizkaria@kalaputxi.eus
*Kalaputxi*k ez du bere gain hartzen aldizkarian hirugarrenek adierazitako esan-iritzien erantzukizunik.

LANAK AURRERATUTA IREKI DUTE KOSTAKO BIDEA

Maiatzean hasi ziren Mutriku eta Deba lotzen dituen kostaldeko errepidea hobetzeko eta oinezkoentzako ibilbidea egiteko obrak. Obrak hasi eta berehala errepidea erabat moztu zen eta Kalbariotik bideratu zen ibilgailuen trafikoa. Ibilgailu astunek eta luzeek, gainera,Trabakuan zehar egin behar izan dute ibilbidea. Lau hilabete igarota, aurreikuspenak bete egin dira eta ireki da errepidea. Oraindik asko falta da obrak amaitzeko, baina lanak aurreratuta daude. Egunero bertatik igarotzen direnek ikusi dute obren egoera, baina ibilgailurik hartzen ez duten mutrikuarrentzat hona hemen argazki sorta bat, obraren tamaina ikusteko.




Aitzeta kanpinerako sarrera parean mendia janda, bideari tokia egiteko.



Alkoleako tunela, Mutriku aldetik. Makina zulatzailea lanean h
gogortuta. Orain arteko bidea oinezkoentzat gordeko da, eta



Arbetik gora, bidea zabalduta.



Alkoleako tunela, Deba aldetik. Makina zulatzailea lanean has
eta tunelaren sarrera-irteera izango den tokian mendia janda.



Arbetik gora, bidea zabalduta.





Obrak urtarril bukaerarako amaitzea aurreikusten da

Herriarentzat hain garrantzitsua den uda sasoian obrak batez ere ostalaritzan eragin du, eta eragin horren neurria ezagutzeko hainbat datu bildu beharko dira. Laranga aldeko auzotarrek eta ostalariek ere aurrerantzean betiko bideak zabalik izango dituzte, nahiz eta oraindik ere obraren eremuko eragozpenak jasan beharko dituzten. Aldundiko ordezkariek adierazitakoaren arabera, obrak 2020ko urtarril bukaerarako amaituko dira. Ordutik aurrera hasi beharko da Ondarbeltzetik Debako zubirainoko zatiaren jarraipenean lanean. Eta Saturraranera joateko bidegorrian ere bai, jakina.



ean hasi aurreko lanak eginda, mendia
eta bertan ez da espaloi berririk egingo.



Debatik gatozela, Arbe azpian, errepidea eta espaloia bere ondoan.



n hasi aurreko lanak eginda, mendia gogortuta
anda.



Ondarbeltzeko errebuelta janda, oraingo errepidea oinezkoentzat geldituko da.



Ondarbeltz. Errepidea egiteko hondartzari jandakoa goi aldean eman zaio.

aparra
JANTZIAK - PITXIAK
GIZON ETA EMAKUME,
GAZTE ZEIN HELDUENTZAKO MODA

APALLU
ITURGINTZA
Telf.: 600 316 381 - 943 02 98 61
San Agustin,3 - Mutriku
apallu@apallu.es www.apallu.es

MUTRIKUKO RUGBY TALDEA

Mutrikuko Rugby Taldeak 2019/2020 denboraldian 2011tik aurrera jaiotako neska-mutilei (2011 barne), aukera eman nahi die rugbya probatu edo jolasteko.

Urteko entrenamenduak:

2011, 2010, 2009 eta 2008an jaiotakoentzako: asteartetan 19:00etatik 20:00etara kiroldegian, eta osteguneta 17:00etatik 18:30etara San Migel zelaian. Osteguneko izango da entrenamendu nagusia, eta asteartekoa gehigarri moduan.

2007, 2006, 2005, 20004... eta aurrero jaiotako haurrentzat: asteartea 19:00etatik 20.00etara kiroldegian, asteazkenetan 16:30-17:45 zelaian eta osteguneta 17:00-18:30 zelaian

Haurrak entrenamenduetara etortzearekin nahikoa ondo pasatzeko. ANIMATU!!!!

Taldearekin harremanetan jartzeko e-posta: mutrikurugby@gmail.com eta 619387579 whatsappa

MENDI TXAKURRAK LAN BIKAINA EGIN-ETA, ZUBIAURREK TXAPELA MUTRIKURA

312 puntu lortu zituen Jabier Zubiaurre "Gorixo" mutrikuarrak Legazpin. Gipuzkoako 51. Artzain Txakur Lehiaketa, urtero bezala, irailaren lehen igandean ospatu zen Gipuzkoako Artzain Egunaren egitarau barnean. Jabierrek aurkari gogorrak izan bazituen ere, bi urte besterik ez dituen Mendi txakurrak lan bikaina burutu eta, lehen postua lortu zuen. Legazpira, Mendi eta Txiki txakurrak eraman zituen Zubiaurrek, eta 22 urteko esperientzia alferrik ez direla erakutsi zuen. Aurten guztira, lau artzain eta zazpi txakur aritu ziren, eta, Jabierren atzetik, hain zuzen ere bigarren eta hirugarren postuan, Migel Arregi oñatiarra sailkatu zen; Argi eta Lagun txakurrekin.

Zubiaurrek txapela pozik jantzi zuen arren, badaki Gipuzkoako txapeldun izatea zer den, 2009an Legazpin



LEHEN HILETA ZIBILA UDALETXEKO ARETO NAGUSIAN

"Norbait hiltzean hileta eta omenaldi zibilak egitea behar sozial batetik sortu da: ospakizun duin eta pertsonala eskaintzea erlijio gabe bizitzea aukeratu duten herritarrei, hildako pertsonak bizitzaz zeukan ikuspegiak bat etorriz."

Honela dio Udalak 2017ko martxoaren 30ean onartutako ordenantzan, eta aukera ezberdinak ematen ditu ospakizuna egiteko lekuei buruz. Udaleko areto nagusia da horietako bat, eta inoiz ez bazen erabili ere, abuztuaren 22an ospatu zen bertan lehen hileta zibila.

Aretoa txiki geratu zen azken agurra egitea agertu ziren guztientzat, txoko guztiak eta alboko aretoa erabilita ere. Udaletxe azpian izan zituen zenduak hasierako eta bukaerako agurrak.



ARRIETA
AUTOZERBITZUA
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

ASTIGARRAGA ANAIAK, S.L.U
ERAIKETAK
Tel.: 943 60 40 86 / 667 411 938
e-mail: astigarragamutriku@outlook.es
Txurruka Tteak., 28 behea - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)



ADINEKOEI URTEROKO OMENA

Urtero bezala herriko adinekoei egin zitzaien omena herriarengatik emandako guztiagatik. Meza nagusia ospatu zen parrokian herriko bikarioak zuzenduta, eta bukatu ondoren elizako eskaileretan atera zitzaien gogoan gordetzeko argazkia, eta, ondoren, udal andra-gizonek egin zieten harrera udaletxe aurrean, bereziki aurrez omendu gabeak ziren andre eta gizon zaharrenei:

MARIA ELORZA AZUMENDI

95 urtekoa. Makina-Xemeinen jaio Mendarora ezkondu (Mutriku aldera), eta egun San Miguel Egoitzan bizi dena

BALDA ILLARRAMENDI EPELDE

93 urtekoa. Oso ezaguna, Mutrikun jaio, bizi eta oraindik egunero bere osteratxoa egiten duena etxetik goiko plaza aldera .


Bertsolariek sarrera egin ondoren, alkateak zuzendu zien hitz batzuek eta egun horretan ohikoak diren opari xume batzuk eskaini. Bertso berriekin bukatutzat eman zen ekitaldia, ondoren prestatuta zeuden mokadu goxoak eta ardo ederrak dastatzera joateko.



SAIA GØAIT TALDEAK LEHEN DISKA KALERATU DU

Urtebetez Euskal Herrian zehar kontzertuak ematen igaro ondoren talde mutrikuarrak labetik atera berri du lehen diska. Bertan stoner-rock eta hard-rockaren doinuak aurkitu daitezke, euskarazko letrekin batera. Diska Mutrikuko AME estudioetan grabatu zuten Axular Arizmendiren gidaritzapean, 2019ko udaberrian.

IBARPLAS
leihoaren erreferentzia
Itziarko poligonoa, C pabilioia · 20200 ITZIAR · Tel. 943 199236 · www.ibarplas.com · ibarplas@ibarplas.com



GAZTETXOENTZAKO BERTSO-ESKOLA

Herrian bertsozaletasuna handia dela begi bistakoa da antolatzen den bertso-saio bakoitzean ikusi ahal den moduan. Helduen artean harrera on-ona egiten zaie horrelakoei eta gazteak ere gero eta gehiago arrimatzen dira. Eta bertsoak entzutea bezainbeste bertsoak sortzea gogoko dutenak ere ez dira gutxi gurean. Urtetan eta urtetan, hor ari dira gure herriko bertsolariak urtean zehar Bertso eskolan entsegatzen eta herriko hainbat ekitalditan bertsoak jartzen. Gazteenak ere, eskoletan Gu ere bertsolari programaren barruan bertsolaritzaren oinarriak hartu eta praktika egiten dute.

Aurtengoan, gainera, Bertso eskolak saio bereziak egingo ditu herriko bertsozale gazteenek bertsolari izateko bidean aukera berria izan dezaten. Herriko Bertso Eskolako kideek gaztetxo mutrikuarrei eskolak emango dizkiete ostiraletan Luardon dagoen Bertso eskolako lokalean, urriaren 4an hasita. Aurrez izena emateko eskatu dute, 678074110 deituta.

ALTSASUKOAK ASKE

Euskal Herriko beste hainbat herritan bezala, Mutrikun ere herritarrak Altsasuko gazteak gogoratzeko eta gartzelan 1000 egun igaro zuten egunean justizia egiteko eta beraien askapena eskatzeko elkartu ziren eleizako eskaileretan. Oihu bakarra mutrikuar gazte eta heldu-ena: Altsasukoak askatu!



MUTRIKU ARRAUN TALDEAK DENBORALDIA AMAITU DU

Abuztuko azken ostegunean izan zen Kontxako estropadetarako sailkapen estropada. Gure herriko arraunlarientzat Kontxako uretan arraunean egin ahal izatea denboraldi osoko nekeen ordain ederra da izan da urte berri batez. Eta urtean zehar traineruaren ibilbidea jarraitu duten aletuentzat ere saria izan da Donostiara joan eta Kontxako giroa bizi ahal izatea.

Dagoeneko hiru denboralditan itsasoratu du Mutriku Arraun Taldeak herriaren izena Kantauri itsasoko kostaldean zabaltzen duen trainerua, eta hurrengoan ere esperantza bada taldea osatzekoa. Gainera, dena ez baita trainerua, bateletan eta traineriletan jardungo dute datorren urtean mutrikuar arraunlariek, neskek eta mutilek. Ea ba, gazteok, trainerua ere osatzen duzuen!



Ristorante AzkenEtxe
egurrezko labean egindako pizzak
italiar sukaldeko zapore guztiak
parrilladak · ospakizunak
(ezkontzak, familia-bazkariak, taldeentzako menu bereziak...)
asteazken iluntzetik igande gauera arte
943 60 34 39 · 636 386 016 · ristorante.azkenetxe@gmail.com · Kalbario gaina, Mutriku

BERISTAIN
DENDA LURRINDEGIA ESTANKOA
Barrenkale, z/g
943 60 35 44

IRAILA

Agorrilak ontzen, buruilak biltzen

Iritsi zaigu iraila ere, iratzarri da udazkena, eta zenbaiten atsekaberako uda datorren urtera arte lozorroan izango dugu. Hala ere, gutako asko azken hilabeteez gozatzen egon garen bitartean, jo eta su lanean aritu denik ere bada. Orain euren txanda da; merezitako oporrak izango dituzte, ziurrenik. Bai horixe! Gozatu!

Bederatzigarren hilabetea (bederatzigarren ilargi betea, irailaren 14an) da, eta ia oharkabean urte amaieraren ateetan gaude.

Gaur egun honakoa bederatzigarrena dela badiogu ere, garai batean urteko lehenengo hilea zela esaten zuten EHko zenbait txokotan; horregatik deitzen zioten “bürüila”.
Zehaztasunetan sartu aurretik, ordea, hilabete honi deitzeko erabiltzen diren eta erabili izan diren hainbat modu aipatuko ditugu. Hona hemen: iraila, garoila (G), bürüila (Z), agorra (G), setemera/setemere (Z), urri lehena (B)…

- Iraila: ira+(h)ila baturatik dator; “Ira” edo “iratzearen” hilabetea. “Ira” edo “iratze” deituriko belarraren izenetik dator “iraila” hitza, hilabete honetan bere sasoirik onenean egoten delako eta kortan abereentzako azpia egiteko biltzen delako landare hau. “Ira” biltzeko garaia da.

- Garoila: Garo+(h)ila baturatik dator. “Garoa” eta “ira/iratze” sinonimoak dira; landare mota bati deitzeko modu ezberdinak dira. “Ira” edo “garoa” biltzeko hilabetea da.

- Bürüila: Buru+(h)ila baturatik etorriko litzateke izen hau, eta garai bateko euskaldunek urtea neurtzeko moduari buruzko zenbait argi-izpi edo zantzu dakarzkigu; hau da, diotenez, garai batean Euskal Herriko eskualde batzuetan iraila lehen hilabetetzat zutelako, eta beraz, urtea hilabete honetan hasten zelako deitzen zitzaion horrela.

- Agorra/agorrila: Agorra+(h)ila. Gaur egun, abuztuari ere deitzen zaio horrela, baina antzinako euskaldunek irailari deitzeko ere erabiltzen zuten izen hau.

- Setemera/Setemere: Izen hau Zuberoan erabili izan da, gure Hegoalde honetan “setienbrea” edo antzekoak erabili izan diren bezalaxe. Kasu honetan, argia da hizkuntza erromanikoen eragina.

- Urri lehena: Irailari deitzeko “urri lehena”, eta urriari deitzeko “urri bigarrena” erabili izan dira zenbait tokitan, iraila ere hilabetearen erditik aurrera urri itxura hartzen hasten delako edo. Arratian, esaterako, “urri lehena” erabiltzen omen zuten irailari deitzeko.

Mutrikun, aldiz, “setienbria” eta “irailla” erabiltzen dira, gaur egun. Hala ere, iturri fidagarriek diotenez, orain urte batzuk herriko hitza zein zen aztertzen hasi eta, “garoilla” aipatzen omen zuten zenbaitzuk. Euskaltzaindiak “ustarrilla” forma bitxia jasoa du Astigarrabian, baina bertakoek forma zahartzat “agorra” (lehorra) omen daukate.

Horra, naturak eta landa munduak gure hizkuntzaren bidez esaten dizkigun zenbait bitxikeri, kontu, eta (iraganeko eta oraingo) bizi molde.

Beste bizi molde batean arreta jarriz, ordea, oporretan egon ala ez, hilabete honetan ez dago etxean gelditzeko aitzakiarik. Malenekin jarraitutako San Juanekin/Donibaneekin hasi genuen uda, eta bukatu ere jaiz beteta bukatuko dugu. A ze hilabetea mutrikuarrontzat iraila, Sanmikollako jaiak, Galbaixoak eta San Jeronimoak! Ez daukat hain argi arrazoia, baina Mutrikuko jai herrikoienak Galbaixoak diren susmoa daukat (hori esaten didate, behintzat, buruak eta begiek). Egunen baten norbaitek azalduko dit zergatik, badaukat jakinmina eta.

Ibon Aginaga Imaz



Gorritxu autoak
Pol. ANTZOMENDI · Galdona bidea
MUTRIKU 943 60 31 86
gorritxuautoak@hotmail.com

Camping Galdona
JATETXE ETA ERRETEGIA
Galdona Baserria
eguneko menua daukagu
Tel. 943 60 35 09 MUTRIKU

Imanol eta Luken

Kresalak zaildutako bizitzak

1933an jaio ziren hilabete batzuen aldearekin Imanol Elezgarai Arreitunandia eta Luken Goenaga Zenekorta, eta bizitza paraleloa eraman dute bata bestearen ondoan, "atai txikixan" hasita. Elkarrekin akolito, elkarrekin itsasoan, egun berean ezkondu eta elkarrekin ezkon-bidaia; elkarrekin ziren Salve Maria arrantza-ontzia hondoratu zenean, eta, jubilatu ondoren ere, elkarrekin ikusiko ditugu maiz herriko kaleetan zehar.

Nolakoa izan zen zuen haurtzaroa?

Gure haurtzaroan ez zen harrokeria handirik, alderantziz, eskasia soberan, gerra ere hor bizi izan baikenuen goseari bidea errazteko. Nire kasuan, dio Imanolek, hare eta okerrago, hiru urte ninduela geratu bainintzen umezurtz aita hiltzean. Hamaika urte ninduen ama berriro ezkondu zenean, baina hara zer den bizitza, hura ere laster hil zitzaigun, anaiak oraindik zazpi hilabete zituela. Ez segururik ez ezer, hamahiru urte bete baino lehen joan behar izan nuen lanera guraize fabrikara egunean bi pezeta irabaztera.


Nire kasuan, dio Lukenek, herriko gehientsuenak bezala, txiroak ginen, eta sasoi hartako gosea dut iltzatuta buruan. Jatuna omen nintzen eta etxean nahiko ez zegoenez "falangeak" Tranpakaleko Montalivet jauregian zuen egoitzara joaten nintzen han ematen zutena jatera, gogoan dut baita ere, Pedro okinaren etxean maiz izaten nintzela, erdi familiakoak ginelako edo bertako umeek jaten ikas zezaten niri ikustean.

Kofradiako eskolara hasi ginen joaten txikitan, eta gero Zabielera.

Non bizi zineten?

Biok "atai txikikoak" gara, nahiz eta sarrera ezberdinetan bizi, atari hura izan zen ume-umetan guretzako jolas lekurik aproposena. Oso gutxitan erabiltzen genituen etxeko eskailerak, agian ilunegiak zirelako edo gogoko genituelako Sulaingoa eta gure etxeen artean ziren, aizkorak eta labanak zorrozten zeharo gastatuta zeuden hare-harrizko eskailerak, jauzika ibiltzen ginen gure gurasoen kezkak areagotzeko. Gerra denborako gertaera bitxia ere izan genuen atai txikikook, bonba bat erori baitzen atari ondoko soloan. Makina bat errezo eskerrak ematen lehertu ez zelako.

"Intxirria" bertan geneukan, eta udaldian han ginen beti uretan sartuak. Amak ezkutatu egiten zigun bainujantziak (galtza zaharrak moztuta), eta, orduan, kamisetari tira-tira egin eta hankartean korapiloa eginda sartzen ginen uretara. "Seka-seka plana..." makina bat aldiz kantatu beharrean izaten ginen etxera siku joateko. Larru gorrian ere ez gintuzten gutxitan ikusten.



Nola gogoratzen duzue kozkortzen ari zineten urteak?

Zabieleko eskolara pasatu ginenean alde eginda zeuden ordurako "Maristak" (babero txiki txuria zutenak), eta euren ordez "Hermanos de la Instrucción Cristiana" etorriak ziren (lepoko tirilladunak), eta han ikasten genuen goiz eta arratsalde erdara batuan. Eskolatik kanpo jolasean jarduten genuen eguneko zatirik handienak, urtaro ezberdinei zegokion kale-jolasak denak. Hala nola: ezkutaketan, lapur-baleka, tronpatan, kate-kateka, mandoka, kaniketan eta... pilotan egokitzen zitzaigun edozein paretetan. Mendi aldera ere egiten genuen, urdaila apur bat baretzeko gehienetan, sagar eta gaztainei eragin aldi bat emanez.

Biok izan ginen batera parrokiako akolito ere. Abade asko ziren eta lehenengo meza goizeko sei eta erdietan izaten zen. Amona "txanbel" Maria Frantzizka zen elizako atea irekitzen zuena, eta hark esnatzen gintuen gure lanak egitera joateko. Akolito batek, jakina, anekdota ugari ditu eliza ingurukoak: Don Kintin-i iheska ibiltzen ginela meza luzeak ematen zituelako, hiletetako sari bereziak (txanponak papertxoetan bilduta) hileta kategoriaren arabera, Franco palio azpian eta gu zirioekin lagundu genuenean Txurrukatarren etxeraino alfonbra gorriz egindako bidean, gari bedeinkatze egunak urdaila betetzeko, zartako ondraduak okerkeriaren bat tarteko, baina ahaztuko ez zaiguna da nola konpontzen ginen "Fumantxu"ren pelikulak Ondarroako zinean ikusteko. Ordu bi eta erdietan hasten zen zinea, eta guk ordu berean jo behar genituen bezperetako kanpaiak. Kanpaiak ordua baino lehen jo, eta korrika ateratzen ginen Ondarroara, aurretik "trailerrak" eta "No-do" botatzen

hitza
herriaren informazioa
herriaren hizkuntzan
herriaren zerbitzuan

Gizonezkoen ileapaindegia
IMOTZ
Erdikokale, 34 - behea MUTRIKU Tel.: 943 60 41 62

zutenez, gai izaten ginen “Fumantxu”ren istorioaren kapituluak jarraitzeko.

Zenbat eta kozkorrago, okerkeriak egiteko gaitasuna ere gora, eta ez zen asko behar orduan “kartzela” bisitatzera joateko. Laranja batzuk lapurtu zenituela, zabaleran olatuei begira arriskuan zeundela, parrokiako atarian pilotan ari zinela…, edozer zen nahiko pekatu igandeko meza nagusiaren ondoren aguazila zain edukitzeko. Taldeka sartzen ziguten udaletxe azpiko gela batean bazkal ordura arte, batzuetan arratsaldera luzatzen zena. Ihes egitea ere lortzen genuen kanpoan zeuden lagunek morroiloa irekita.

Dena den, hamabi-hamahiru urterekin, lanean hastearekin batera, gizondu behar izan ginen, bata, guraize fabrikan eta “Gran Chambelena” arrantza-ontzian bestea txalupa-mutil soldata laurdenarekin.

Urteetan zehar asko aldatu izan zitzaizuen itsasoko bizitza, ezta?

Bai. Nire lehorreko lana laster aldatu nuen, dio Imanolek, Juan de Diosen txalupara itsas bazterreko arrantzara joateko, eta 16 urterekin “Maria Belen” ontziko eskifaian nengoen. Gure gazte denboran itsasoaren egoerak bakarrik baldintzatzen zuen itsasoratzea. Urte guztian egiten zen lan, eta, hotzak baldintzatuta, negukoa gertatzen zen zailena. Txalupa-mutil ginenean, neguan, gaueko hamabietan hasten ginen gizonei deitzen, eta gero aitona-lonjakoaren esanetara jartzen ginen. Hori ontziratutakoen arteko zaharrena zen eta lonjako lanez arduratzen zena. Ez zen itsasoratzen, baina tretzak karnatatzera etortzen ziren emakumeen zein haurren ardura hartzen zuen, baita lehorrean zeuden beste zereginena ere.

Gaztaroa aurrera eta ezkontzeko unea ere iritsi zitzaigun. Biok ezkondu ginen egun berean 1959an, eta koinatu bihurtu ginen. Ezkonbidaia ere elkarrekin egin genuen. Ordurako aterata genituen alturako patroien tituluak. Kostata, zeren ezin genuen lana utzi, etxean soldataren beharrean ginelako. Altura handiko titulua ateratzeko aukera izan bai prestaketa aldetik, baina dirurik ez genuen izan azterketarako izena emateko.

Arrantza-ontziak gero eta handiago eta indartsuago zetozen, eta gu “Maria Belen” ontzitik “Salve Maria” ontzi berrira aldatu ginen, eta, jakina, atuneta ondoren, Afrika aldera egitea tokatu zitzaigun beste askori bezala 1962an, bata patroi eta bestea solta-patroi. Dakarrera esaten zen joaten ginela, baina Fernando Poo-raino (gaur Bioko) iristen ginen, ekuatoretik 120 miliara. Ideia bat egiteko: Mutriku-Finisterre 400milia / Vigo-Canarias 500milia / Canarias-Dakar (Senegal) 820milia / Dakar-Abidjan (Boli-Kosta) 600milia / Abidjan- Bioko (Kamerun) 300milia.

Lehenengo urtean arrantza makala egin genuen. Arraina uztera Freetown-era (Sierra Leona) joaten ginen, egurrezko moila zuen kaira. Bertan erabaki genuen ontziaren azpiak garbitzea, arraina uxatu egiten zuela pentsatuta, eta “karrora” igotzean ia tira-bira egin zuen ontziak, karroak ez zuelako tenteko hagarik. Hurbil zegoen, eta kai egokiagoa zuen, Abidjanera joan izan behar ginen, garbitu eta patentea ematera. Itsasoratu eta lasterrera, hiru hankan egin izan behar genuen Dakarreraino bidea pistoi bat matxuratu zitzaigulako. 27 egun igaro behar izan genuen bertan zain, aldatzeko behar genuen pieza bat eskuratu arte. Herriko merkatuan nolabaiteko tratuak egin berdurak lortzeko hizkuntzarekin jolastuz, eta portuan bertan harrapatzen genituen txitxarroak eta hurbilean biltzen genituen lanpernak izan ziren gure egunero menua. Handik etxera egin genuen zuzenean, alde eginda baitzeuden ordurako beste ontzi guztiak.


Bigarren marea ekipoa osatuz egin genuen: “Rosa del Mar”, ””Gran San Juan Bautista” hondarribiarra eta gure “Salve Maria”. Gureak hozkailu handiena zuenez, besteak arrantzan utzi eta porturatzen genuen arraina, ur-beltzetan bakarrik ibiliz. Ordurako bagenuen goniometroa, eta betiko sestantea lagun gai ginen ur haietan biderik ez galtzeko. Marea oso polita egin genuen. Beste lau urtetan joan ginen, Algeciras deskarga puntu bezala hartuta, bere inguru zabalean arrantzatuz. Bi urtetan Tarragonara jo genuen, hango legetara egokituz.

Une gogorrik bizitzea tokatu al zaizue? Anekdotaren bat?

Nahiz eta anekdota asko izan, bat kontatuko dut ez zelako izaten ohikoa, dio Imanolek. Erizain lanak ere eginbehar izaten genituen, eta, behin, tripulazioko bati amua sartu zitzaion eskuan. Oso ikaratia zenez, eskuari heltzen ere ez zigun uzten, atera nituen, orduan, botikinean neuzkan lanabes guztiak, eta haiek ikustean galdetu zidan “Horiek guztiak zertarako?” eta, “Operazioa egiteko” erantzun nionean, kordea galdu zuen. Bere onera etorri zenerako amua aterata zeukan.

Itsasoan gertatzen diren une gogor horietarik, gizona galtzea-eta ez genuen bizi izan. Gogorrena “Salve Maria” hondoratu zitzaigun unea izan zen. 1989ko irailaren 25ean, Asturiasko “Cabo de Peña”ren aurrean, sua sortu zitzaigun makinan, eta frantziarren laguntza iritsi zenerako ez zegoen zer eginik. Ordu betera zegoen “Udaberri” ontzi mutrikuarrak jaso zigun, eta, bertatik, malko artean, ikusi genuen poliki-poliki nola urak irensten zuen hurrengo eguneko goizeko bostetan gure bizi-leku izan zena 26 urtetan. Une hartan 1100 atun 10-12 Kg. artekoak genituen hozkailuan.

Orain, hemen gabiltza herriko harriak gastatzen oinak beti lehor.





LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268

MUTRIKUARRAK HABANAN

1938-1962

Habanako hiriak 500 urte beteko dituen momentu honetan, Habana aldean ibili diren mutrikuarrak gogoratuko ditugu. Antzinakoagoak historia liburuetan aurkituko dituzue, eta gaur egunekoak igual Mutrikuko kalean ikusiko dituzue uda pasatzen. Artikulu honetan, XXgarren mendearen erdi aldera Habanako hirian bazterrak nahasten ("nahasterrak bazten", esaten du nire lagun batek) ibili ziren mutrikuar batzuk aipatuko ditugu: Estanislao Maiztegui, José María Ituarte, Juanito Saizarbitoria, Egurbide eta Churruca... Arazoen erdian beti ondarrutarren bat dabilela esaten dute mutrikuarrek, baina mutrikuarrak eurak ere nabarmendu dira batzuetan nahasterrak bazten. Esate baterako, sasoi batean Habanan bitan banatuta egon zen bi mutrikuar zirela eta...

PISTONISTAK ETA ITUARTISTAK

Sasoi batean, Piston Habanako pertsonaia famatuenetakoa izan zen. 1938ko otsailaren hasierako prentsan, esate baterako, asko anuntziatu zen Pistonek bakarrik hiru pelotariren aurka egin zuen partidua. Asteazken gau hartan, Habana osoa tristatu omen zen partidua galdu zuelako. Kontatu zuen prentsak gau ilun hartan kabaretetan ere, jazz zoroaren eta konga alaiaren ordez martxa funebre txopinianoak ipini zituztela. Guaguak ere histu eta astirotu egin omen ziren goizalde hartan. Munduko zesta puntaren plaza nagusia zen orduan Habana 1930 eta 1955 buelta hartan. Eta bertan jokatzen zuten zesta izar biak, Estanislao Maiztegui "Piston" eta Jose Maria "Ituarte". 1938 eta 1945 bitarteko urteetan Pistón eta Ituarteren artean banatu zen Habanako jendea. Gaur egun habaneroak Madridistak ala Barsakoak diren bezala, orduan pistonistak ala ituartistak ziren. Piston Mutrikun jaioa zen 1912ko abenduaren 17an. 9 urtekin debutatu omen zuen Bartzelonan, 11 urtekin Cienfuegosen jokatu omen eta 12rekin New Orleansen. 1938ko urtarrilean hasi zen Habanako frontoian. Jokoan oso habila omen zen, baina batez ere oso segurua. Zesta aurrelaririk hoberenetakoa izan zen eta, Habanako Jai Alaian 1225 partidu jokatu ondoren (baina 3000tik gora guztira), erretiratu zen 1955ean. José María Ituarte ere mutrikuarra zen. Habanan "El sonámbulo" deitzen zioten, ez dakit zergatik. Arriskuzaleago omen zen jokoan eta erreматean oso ona. Normalean Pistonen aurka ipintzen zuten jokatzen, Piston Maguregi edo Urionarekin, adibidez, eta Ituarte Ermuarekin edo Azpirirekin, esate baterako. Piston oso segurua eta kontserbadoreagoa omen zen, Ituartek peloteo gutxiago eta erabakitzeko joera gehiago. Ituarte Piston baino lehenago erretiratu behar izan zen, bihotzeko arazoekin.

JUANITO SAIZARBITORIA

Pistonen eta Ituarteren izar urteak Habanako gauerdiko zeru garbian, konturatuko zineten gerra eta




gerraoste urte ilunak izan zirela Euskal Herrian. Hain zuzen, Gerra Zibilean gudari ibili ondoren heldu zen, beste askorekin batera, beste mutrikuar bat: Juanito Saizarbitoria, 1909an jaioa. Euskal Gobernuak bere territorioa galdu zuenean, Frantziara alde egin zuen. Kubara lortu zuen etortzea Frantziatik, han ere nahasterrak baztu zirenean.

Kuban, Jose Antonio Agirreren gobernuak eta Alderdi Jeltzailearen proiektu baten barruan, Centro Vasco delako baserri elkarte-jatetxea eraiki zuen. Jon Bilbaok izan zuen goiko parte politiko-kulturalaren ardura, Alderdi Jeltzailearen enkarguz, eta Ramon Saizarbitoriak beheko parte gastronomikoarena. Malekoitik eta Paseo kaletik pare bat koadratara: 3 eta 4 kaleen gurutzaketan. 1954ko abenduaren 22an zabaldu zen jatetxea eta arrakasta itzela izan zuen berehala. Euskaldunak, kubatarrak eta amerikarrak. Ez omen zen arraroa Ernest Hemingway, Josephine Baker edo Frank Sinatra bezalako jendea ikustea han. Iraultzaren ondoren, Fidel Castro behin baino gehiagotan egon zen Centro Vascon gonbatuta. Hainbat mutrikuarren argazkiak ere badaude Fidelen aldamenean. Baina gero, gauzak konplikatu egin ziren, eta Juanitok Miamira joatea erabaki zuen.

EGURBIDE ETA TXURRUKA

Txato Egurbide izan zen Habanako frontoiko azken izarretakoa. Bost urtez jokatu zuen eta 900 dólar kobratzen omen zituen hilean, Miamin kobratzen zena baino askoz gehiago. Gero, asko baztuko ziren nahasterrak Habanan zestarentzat. Habanako Jai Alai frontoiko azken partidu gogoangarria 1959an jokatu zen, ja Iraultzaren sasoian. Kubatarrak & miamitarrak aurkeztu zen partidua, nahiz eta euskaldunak izan lauak: Egurbide eta Luis Etxaniz ziren kubatarrak eta Txurruka eta Orbea I miamitarrak. Egurbide eta Etxanezen indarra Orbearen argitasuna eta Txurrukaren habileziaren kontra. Giro ederra egon omen zen frontoian, Fidel falta zen bakarrik, han zeuden beste komendanteak, Ernesto "Che" Guevara bai eta Errepublika berriko presidentea ere bai, Manuel Urrutia. 30-28 irabazi zuten miamitarrek.

Gauza arraro bat gertatu zen sari banaketaren ondoren. Milizianoren batzuek trofeoa eskatu zioten irabazleei, haien izenak grabatzeko edo. Gauza da Txurrukak eta Orbeak ez zutela kopa harrezkero ikusiko. Iraultzak ez zuen apostuen kontua onartuzen eta Habanako zesta puntaren gainbehera heldu zen. Ché Guevarak, Ekonomia Ministroa zela, abisatu zuen ez zirela halako lekuak babestuko. Piston zen orduan Frontoiko intendentea eta Mutrikun zegoen Egurbideri abisatu omen zion: "Ez etorri hona berriro, ezta pentsatu ere!" Egurbideren anaia batek, Sabino Markue eta halako batzuek jarraitu zuten jokatzen 1962 arte, baina gehienak ja kubanoak ziren. Piston, kubana batekin ezkonduta, Miamira joan zen bizitzera. Juanito Saizarbitoria ere Miamira herbesteratu zen eta han zabaldu zuen, Little Havana auzoan, Habanako Centro Vascoren erreplika bat. Gauzak zer diren, 1996 urtean, Kuban bizi zen kantari bat gonbidatzeagatik antikastristek lehergailu- atentatuz suntsitu zuten Miamiko Centro Vasco hori eta Juanito erretiratu egin zen. Juanitok autobiografia bat idatzi omen zuen erretiratu ondoren, baina ez dugu aurkitu. Ramon Saizarbitoria idazlearen osaba zen eta, ez luke honek ez gaia ez dohaia faltako osabari buruzko biografia nobela on bat idazteko.



Tolentinoko Nikolas Santuaren ermita

Historia eta istorio asko daude ermitei buruz, baita hauen erabilerei buruzkoak ere, helburu ezberdinak izan baitituzte. Dirudienez, ermita izena hartzen zuten, inoiz, meza ematen bazen bertan. Kristautasunak indarra hartu ahala, asko ugaritu ziren gure lurretan, baina egoera ekonomikoak behartuta, hemezortzigarren mendearen erditik aurrera, desagertzen joan ziren, edo beste zerbaitetan bilakatzen: hala nola, santu izena duten baserriak.

Nikolas Santuaren ermita hau 1548. urtetik agertzen ei da artxiboetan, Jabier Basterretxeak dionez. Oraingo itxura 1946. urtean hartu zuen, eta, aurrean duen harrizko arkua, Goiko Plazako iturriaren gainetik kendu zen kioskoa egitean; gaur, turismo bulegoaren gainean, lehengo lekuan, neurri berdinekoa dago eraikia udal aparejadorearen esanetan.

1947ko irailaren 10ean, Juan Pison / Marcial Gabilondo / Francisco Osoro / Jose Luis Zubizarreta / Jose Maria Agirre / Lorenzo Barinaga / Tomas Calzacorta / Manuel Urreisti / Jose Maria Zubizarreta / Benigno Agirrezabala / Jose Maria Astigarraga / Andres Barruetabeña / Evaristo Agirre / Nicolas Illarramendi / Jose Arruti / Juan Jose Iparragirre eta Martin Egañak inguruan zegoen *Buenos Aires* jantokian bilduta, besteen artean erabaki zuten: “Cofradía de San Nicolás de Tolentino” sortzea eta Nikolas Santua Galdona-mendiko nekazarien babesle izendatzea, ermitaren alboan aterpe bat egitea, eta aurrerantzean mantenu lanak egitea. Kofradiaren ardura eramango zutenak Jose Maria Agirre eta Evaristo Agirre izango ziren bokal lanetan, Lorenzo Barinaga diruzaintzan eta Juan Pisón behin behineko idazkari bezala. Lehen aktan aipatzen dute Luis Landa parrokoak bedeinkatu zuela ermita, eta, era ofizialean, Mutrikuko Udala agertu zela bertara.

Orain hogeita hamar urte, etxe berriak eraikitzean, aldakuntza batzuk izan ziren, eta aterpe berria atzeko aldean kokatua dago harrezkeroztik.

Urteak igaro dira ordutik eta, arrunta den bezala, gora beherak izan ditu kofradiaren funtzionamenduak. Gazteen ekimenek bultzatu izan dute aldizka jaien ospakizunak indar gehiago edo gutxiagorekin, baina Martzelita Txurruka eta bere senarrari eskerrak eutsi izan zaie urte luzeetan oinarrizko ohiturei.

Egun, indar haundiz dabil kofradia. Urtean zehar beharrezko diren garbiketa, diruaren kontrola, kandelak jartzea, eta abar, emakume batzuen arteko ardura da. Jaien ospakizuna antolatzen auzoko gazte andana arduratzen da auzo-bazkaria tarteko, eta brigada indartsu batek heldu dio aurtengoan ermitaren barne eta kanpoko mantenu lan sakonari. Egunetan aritu izan dira ekinean, gaztetxoak tartean zirelarik. Azpimarratu digute irekita dagoela kofradia nahi duen guztiarentzat.

Hau irakurri ordurako beteta izango dute egitaraua, eta behin eta berriz aldarrikatua: ZEIN DA ONENA? SA-MI-KO-LLA!!!!!!!!!!







Ntra. Sra.
de Begoña
EHORZKETA
Iriagirre z/g
Tel.: 646 351 352 - 943 60 47 78
943 20 10 95 (**24 ordu**)



SUKALDEKO ALTZARIAK
EBANIZTERIA
OKILA AROZTEGIA S.L.
Txirritxa - Mutriku
Tel. 943 60 40 18 - Faxa: 943 60 31 03

Hondarraitz Irratian



Mutrikuko Hondarraitz txiringitoak irratiko bi elkarrizketa jaso ditu uda honetan, bata Euskadi Irratiarena eta bestea Gaztea irratiarena. Elkarrizketa hauen jatorria izozkiak iragartzen dituzten kartelen euskaratzea izan da. Hondarraitzekoek izozkien kartela euskaratzearen beharra ikusi zuten, eta honek zenbaiten begirada erakarri ondoren ezagutaraztera eman da

Igualatorioarekin eta
Osakidetzarekin
lan egiten dugu

Audioprotesista
egunero zentroan
Audiometriak doan

OPTIKA VITORIA

OPTIKA • AUDIFONOAK

ERRIBERA 16 • 48700 ONDARROA • 946134138 • mvitoria@cnoo.es

txirritxa .com

SAR ZAITEZ GURE WEB ORRIAN ETA AURKI EZAZU PROMOZIO BEREZIAK!

Tel. 946 832 600

Gardotza Industrialdea, 3 > 48710 Berriatua > Bizkaia

ZELAIETA JATETXEA

Tel.: 943 60 45 95 Olatz Auzoa - Mutriku

LIÑUA (II)

JANZTEKO BALIXO ZOAN BEDARRA

Garagarrilleko aldizkarixan liñazixa ereitxetik liñu-harillak lortu arte egin biharreko lanen berri eman genduan. Gaurko hontan berriz, hari fin harekin lehengo emakumien esku abillek egitxen zitxuen ehun eta erropak aitxatuko ditxugu.

Etxian egindako liñu-harixa, harill edo obilluetan batuta, ehundegira eruaten zan bertan ehuna egitxeko; izan ere ehuna ezin zeiken edonun egin, harixa bai, etxe bakoitzian egitxen zan, baiña ehunak espezializaziua eskatzen zoan: ehundegixa edo ehunmakiñia.

Ehundegixak

Herrigunetan edo baserrialdeko etxe jakin batzuetan baiño ez ziran egoten ehunmakiñak. Bertan, ehungiñek edo ehuliek jarduten zeuen baserritxarrek eramandako harixarekin *ehuna* egitxen.

Harixa egitxia andrazkuen zeregiña bazan ere, hari hartatik ehuna egitxen gizonezkuek nahi andrazkuek jarduten zeuen. Hona hemen adibide batzuk:

Magdalena Lecuona mendaroarra, ehungintzako lanak ikastera juanda, Laranga baserrixan azaltzen zaku 1775.urtian: *"natural del valle de Mendaro, y de estado soltera que a la sazón estava en la casería de Laranga a aprender a texer liensos"*; sasoi hartan normala zan bezela, ez zan ofizio bakarreko andria: *"es de oficio labradora y texedora de lienzos"*.

1795.urtian Mutrikun bizi zan Juan Biramont frantsesa prozesatu zeuen, Ondarrua erretzen parte hartu zoalakuan. Ehungillia edo ehulia zan Biramont: *"natural de Vildose en el obispado de Oloron, Francia, y residente en Motrico, tejedor de lienzos, acusados de espiar para los franceses y haber participado en el incendio de la villa de Ondárroa"*.

1893.urte inguruan bi ehule edo ehungille agertzen dira Mutrikun: Jose Manuel Beristain eta Fermin Galarraga.

Aita J.M.Barandiaranek idatzi zoanez, 1877. urte inguruan laga zakon Mutrikuko etxietan liñuzko erropak egitxiari. Hori kontuan hartuta, pentsatzekua da ordutik aurrera askoz erropa gehixago salduko zeuela gure herriko dendetan. 1898.urteko gida baten, konparaziotarako, *"tiendas de telas"* atalian saltzaile honek topatzen ditxugu: Celestino Eguren, Francisco González, Francisco Ibarzabal, Cristobal Letona (Cooperativa de "La Artesana"), Isabel Ruiz eta Francisco Aspe.

Ehuna

Adin batetik gorakuek, lehengo zaharrei ikasitxa nunbaitx, *ehun* hitza ezagutzen deue, eta badakixe zelakuak ziran "ehunezko erropak", liñuarekin egindakuak hain zuzen ere. Ez hori bakarrik, Mutrikuko etxe baten baiño gehixotan, oraindik ere, ehunezko izarak, burukuak eta antzekuak gordetzen ditxue.

Gure herriko dokumentu zaharretan erderazko "lienzo" hitza topatzen degu *ehuna* izentatzeko. Beste hitz batzuk ere badoz ("tejido", "tela"), baiña "lienzo" horrek liñuz egindako ehuna zala esaten digu. Erde-



razko hitz hori latinezko "linteum"-etik ('liñuzko ehuna') dator.

Antonio Miguel Acilona alkatiak 1771.urtian azaltzen deu Mutrikun ereitxen zan liñua bertarako ehunak egitxeko erabiltzen zala: *"se coje alguna porción de lino el qual se emplea en hacer parte de los lienzos blancos que se necesitan en esta villa"*. Eta aurrerago, preziuaren berri ere ematen digu: *"el precio de los lienzos de la tierra es dos y tres reales de vellón por vara siendo por común su anchura media vara"*. Hor ikusten dan bezela ehunak neurtzeko "vara" ibiltzen zan, "kania" euskeraz. Gipuzkuako kanak 83,7 cm-ko luzeria zakala kontuan hartuta, argi do: XVIII. gizaldixan Mutrikun saltzen ziran liñu-ehunak 41,84 cm-ko zabaleria zaken.

Erropia

Norperak ehundegian egindako edo erositxako *ehun* harekin, janzteko erropak eta oheko erropak egitxen ziran etxian: alkondarak, buruko zapixak, serbilletak, toallak, izarak, buruko-azalak...

Aitxatxeko modukua da, sasoi baten, emakumiek urtietan jarduten zeuela ezkontzarako arriua prestatzen. Erropa gehixen-gehixena liñuzkua zan orduan. Ez zaken lan makala!!

Mutrikuar batzuek esan digue izarak-eta, orainguen aldian, takarrak zirala, eta ixaixa tolduak ematen zeuela; koloria ere ez ei zaken zuri-zurixa, marroixkarak ziran. Oso freskuak ei ziran liñuzko erropak. Lotarakuan, ohia berotzeko denbora gehixo bihar izaten zeuen... baiña bere alde ona ere bazaken liñuzko erropak, izan ere freskotasun horrek aproposaguak egitxen zitxuan beruarekin eta lanian ez izerditzeko.

Aspaldiko testamentu, inbentarixo eta kontu-liburuetan behin eta berriz agertzen dira liñuz egindako erropak. Adibide batzuk ekarri ditxugu hona:

Catalina Elorriaga mutrikuarrak 1627an egindako testamentuan halaixe irakurri geinke: *"mando a Sebastian de Guilixtegui mi marido una tela de lienço que tengo dado a texer en poder de Mariana que vibe en la cassa del horno (...) en la calle de Sabanaca para quatro camissas y declaro le tengo pagados a la dicha Mariana texedora a buena quenta quatro reales"*. Dokumentu berian azaltzen zakunez berme edo



prendatzat liñuzko erropak ematen ziran: *"...tengo una sabana de lienço nuebo de la tierra con algunas labores de algodón por prenda de 16 reales que me deve Catalina de Jauregui"*.

Olatz baillerako etxe baten egindako inbentarixuan (1632.urtian) liñuzko buruko-azala agertzen da: *"un burco azal de lienco de la tierra nuebo con barras"*.

Bertako ehunari *"lienzo de la tierra"* esaten zakon, baiña hori ez zan ***ehun*** bakarra, jatorrixaren araberako izena hartzen zoan ehun klase bakoitzak: Frantziakua, Holandakua, Flandesekua... Ondo ikusten da hori Juan Isusi eta Maria Casado andra-gizonen etxian egin zan inbentarixuan (1742). Orduan ohikua zan bezela, kutxa haundi baten zakezen liñuzko erropak: *"16 sabanas de lienzo de la mar ussadas, 8 hazes de camas de lo mismo, 10 traveseras de lienzo de la tierra usadas, 3 cubertores de almoadas de lo mismo, 3 traveseras de lienzo de la mar, un cubertor de la almoada de lo mismo, 10 camisas de hombre las 8 de ellas de lienzo de la tierra y las dos restantes de roan, usadas, unos canzonzillo de crea nuevas entradas en agoa, unas calzettas nuevas, un jubon de cottoni, ussado, 5 toallas quattro de ellas usadas y una nueva, todas de lienzo de la tierra, 3 manteles de mesa, de lienzo de Franzia, usados, 16 servillettas, seis de ellas de lienzo de Franzia, 5 de lienzo de Flandes y las cinco restantes de lienzo de la tierra, todas usadas, una tela nueva de 54 baras de lienzo de la tierra"*. 45 metro luzeko ehuna!!! Erropatan zakezen ondasunak ikusitxa... pobre-pobriak ere ez ziran izango, ez horixe!

Gaur egun erropia bihar degunian erropadendak aukeran daukaguz, baiña sasoi baten dan-dana neurriz egitxen zan: zapatak, alkondarak, galtzak... Mutrikuko San Lazaro ospitxalian pobriak osatu eta bihar zeuen erropia ematen zixuen. 1775. Urtian, esaterako, 30 errial eman zixuezen Ana Maria Andonaeguiri, *"por 7 varas y media de lienzo de Francia que se le compraron para hacer dos camisas para Joseph de Echazabal y Francisco de Echave, pobres naturales de esta villa"*.

Beste materixal batzuekin egindako ehunek (kotoizkuak batez ere) eta fabrika haundixetan merkiago saltzen zitxuen erropek, liñuz egindako ekonomia lokala desagertzia ekarri zeuen.

Kordelak

Harixa egitxeko balixo zoan bezela, baserrialdian aitxatu digue sasoi baten sokia egitxeko ere erabiltzen zala liñua, *"aitxa zanak esaten zoan liñuak sokia egitxeko ere balixo zoala"*. 1588.urtian Francisca de Carquiçano alargun lekeitxiarrak, Maria Yturriaga mutrikuarrak zor ziozen 34 errial eskatu zitxuan, *"por razon de çiertas cordas de lino que le dio e bendió"*. Itxura danez Carquiçanok arrantzarako kordak edo kordelak egitxen zitxuan Lekeitxion. Bixigu-kordek esaterako, liñuz edo kañamuz egindako kordelak eukitzen zitxuen, 80 bat kanako luzerakuak (67 metro inguru).

Manipaturia

Liñuaren beste erabillera baten berri ere eman nahiko genduke. Mutrikun eta itsasbazterreko herrixetan liñazitxik ateratako olixua (liñazi-olixua) ematen zakuen itsasorako erropei, eurixa ziharduanian hobeto babestiarren arrantzaliak.

Galiziako Porto do Son herritxik Mutrikura etorritxako Maneiro-Chouza famelixak itsasorako "zira" egokixak egitxen zitxuan sasoi baten. Tela zati zurixak erosi eta Leonardo Maneirok abilezia haundiz "patroi" edo plantilla baten laguntzarekin ebakitzen zitxuan galtza, txaketia edo suesta (edo txanua) osatu arte. Bigarren lana bere andriak egitxen zoan, Carmen Chouzak: zati horrek josi egitxen zitxuan etxian zakan makiñian. Lan hori amaitxutakuan liñazi-olixua ematia falta zan. Olixo horri Mutrikun izen xelebria ematen zakon: "manipaturia" edo "manifaturia". Brotxa batekin ematen zakuen olixo haura uretako erropei. Hiru baiñu edo esku ematen zakuezen. Hola, gorputz gehixago hartzen zeuen erropa harek. Portu aldeko leku haizetsu baten eskegitzen zitxuen zirak, lehenago sikatu zitxezen. ***Manifaturia*** emandakuan hasierako kolore zurixa galdu eta kolore horixkaria hartzen zeuen zirek.

Handik urte batzuetara, 1958.urte inguruan, Iruñako "Manufacturas Nosa" enpresak egindako plastikodun trajiak saltzen hasi ziran Mutrikun. Haren kontra ez zauan lehiatzerik. Orduan, maneirotarrak apurtzen ziran traje harek konpontziari ekin zixuen (txaplatak jarri...). Edozela ere, zira-egintzaille eta konpontzaille fiñak ziran maneirotarrak. Nekez sartuko zakuen ura beurek egindako zirei. Merezitako famia zaken, bai Mutrikun, bai Ondarruan.

Arrantzaliek, euren erropei ezeze, barkuetako neberako panelei ere ematen zixuen "manipaturia", egurrak ez usteltzeko. Eta ez ziran panel gitxi, e! 300-400 panel inguru zakazen barku bakoitzak.

Josu Larrañaga Arrieta


AGURRAK ZORIONAGURRAK ZORION



JON
Atzeratuta ada ere ZORIONAK gure etxeko kirolarixai. Matxo potoluak danon partez.



ANER
Zorionak Aner! Egun ederra izan dezazula opa dizugu Danel, Adei, Ibai, Enaitz eta Eberrek.



PEIO
Zorionak gure potxolori aitona, amona eta etxeko guztion partez Abuztuaren 11an lehen urtea bete zenuelako.



PAULA
Zorionak aita, osaba Alex, Jose eta amonan partez abuztuak 8an 4 urte bete zenituelako. Matxo handi asko.



GURUZNE
Zorionak munduko amaik onenai ta segi zean bezelakua izaten!!!







KALAPUTXI

ZORIONTZEKO


E-POSTA
kalaputxi2001@gmail.com
aldizkaria@kalaputxi.eus

WHATSAPP
635748393

ESKURA
ANSORREGI ZAPATA-DENDA

KALAPUTXI

Joseba Iñaki Eleizgarai
masajista eta osteopatia
Tel: 630 788 059 - Konte kalea 22, Mutriku



ANSORREGI
oinetakoak
erdiko kalea 9
mutriku
943 60 33 42
agerretxo@gmail.com

Argazki Zaharrak



1981ko Abuztua, Isasiko zelaian mutrikuarrak txapeldun

Tente:

Sebastian Ituarte, Jose Mari Egaña, Pedro Alkorta, Joxe Angel Ariznabarreta eta Andoni Egaña.

Kukulumutxu:

Joxe Angel Egaña, Rufino Ituarte, Agustin Agirre eta Joxe Mari Astigarraga.

ERAIKUNTZAK
OLATZ S.L.
Igeltseritza orokorrean, Txalet, Erreforma...
Tel. **943 60 44 10 / 670 41 42 23 - 24**
Olatz Auzoa, Urrestieta Baserria - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

Uzuri
RPS 183/12
ELGOIBAR - DEBA
optika audio
DEBA, Ostolaza 7 - Tel. 943 19 21 92
ELGOIBAR, San Frantzisko 21 - Tel. 943740359

www.kalaputxi.eus/botikak

ZAINTZAKO BOTIKAK

(gaueko 10ak arte)

IRAILA		URRIA	
20tik 22ra	Lasuen-Elezgarai	1etik 3ra	Lasuen-Elezgarai
23tik 26ra	Amaia Zalduegi	4tik 6ra	Lon Apraiz
27tik 29ra	Hiart Burgoa	7tik 10era	Hiart Burgoa
zapatu (28) goizean, Lon Apraiz		11tik 13ra	Amaia Zalduegi
30ean	Lasuen-Elezgarai	zapatu (12) goizean, Lasuen-Elezgarai	
Gauetan, egunero (22:00-00:00):		14tik 17ra	Lon Apraiz
ELGOIBAR		18tik 20ra	Lasuen-Elezgarai
Gauetan, egunero (22:00-09:00):		21etik 24ra	Amaia Zalduegi
Mercedes **ZUMETA**		25etik 27ra	Hiart Burgoa
San Agustin 5, EIBAR		zapatu (26) goizean, Lon Apraiz	
943 82 04 98		28tik 31ra	Lasuen-Elezgarai

#AGENDA#

San Jeronimoko JAIAK

Irailak 28, zapatua

17:30ean
HERRIKO MOTOCROSS
ZALEEN ERAKUSTALDIA
ondoren
DANTZA ERAKUSTALDIA
Gure Ametsa Dantza Taldea

ERROMERIA
Laket

Irailak 29, domeka

Goiz Osoan
PUZGARRIAK

ondoren
AUZOKOEN ARTEKO HERRI
KIROL SAIOA

AUZO BAZKARIA

Irailak 30, astelehena

12:00
MEZA
Ondoren
HERRI KIROLAK
17:30ean
HODEI MAGOA
18:30ean
IBIRI BERE ABEREEKIN
20:30
ERRIFEN ZOZKETA

MENDI IRTEERAK

urriak 13

MANDOEGI

azaroak 17

Elizondo-ALBA-Elizondo

abenduak 1

ARNO inguruak

Burumendi Mendi Elkartea



ODOLA EMATEA

urriak 11, 18:00etan anbulatorioan

Gipuzkoako Odol Emaileak

egitarauak eta deialdiak: **aldizkaria@kalaputxi.eus** edota **whatsappa 635748393**

www.kalaputxi.eus

Zure establezimenduaren berri mutrikuar guztiei emateko...

KALAPUTXI

Luardo etxea, behea · Barrenkale, 12 · Tel. 635748393

kalaputxi2001@gmail.com

EROSKI city

Gure bezeroengandik beti hurre









okindegia · fruitategia · harategia · urdaitegia · eta beste
asteazken eta ostegunetan erosketak etxera eramateko aukera
San Agustin 10 · Mutriku · Tel. 943 60 36 11

Euskararekin
Match!

Egin gurekin bat

19/20
Matrikula epea zabalik
Plazo de matriculación abierto

UDAL EUSKALTEGIAK
euskara klaseak · clases de euskera

Matrikula zabalik

Ikastaroak

Aurrez aurrekoak: 2, 3 edo 4 egun astean, mailaren arabera.
Autoikaskuntza Internet bidez.
Euskara ulertu eta euskaraz bizitzeko ikastaroak.
Mailak: A1, A2, B1, B2, C1, C2.
Azterketa prestatzeko ikastaroak: HABEren titulu ofizialak, Administrazioa, Osakidetza.

16 urtetik gorakoentzat
Matrikulaldia: irailaren 25era arte
Langabetu, ikasle eta gurasoek MATRIKULA ERDIA
Ikastaro amaieran BEKAK denentzat. (Baldintzak betez gero)

Informa zaitez Udal Euskaltegian!

MATRIKULA ORDUTEGIA
ELGOIBAR: 09:00 – 13:00 / 15:30 – 19:30
DEBA: 10:00 – 12:30 / 17:00 – 19:30
MUTRIKU: 09:00 – 13:00 / 16:30 – 19:30

DEBABE UDAL EUSKALTEGIA
ELGOIBAR: Aita Agirre 3, 3.a (eraikin berria) – 943 742 731
DEBA: Ifar kalea, 12 – 943 192 236
MUTRIKU: LUARDO ETXEA, Sabanika aldapa, 4 – 943 603 094

MATRIKULAZIO GARAIA
ZABALIK

urriaren 1etik 9ra

(abenduan, urtarrilean eta otsailean hasteko)









Mutrikuko Haurreskola

943 60 41 19

mutriku.mutriku@haurreskolak.eus

www.haurreskolak.eus

HaUrreSkoLaK